• Según la estrategia Klima DSS 2050 disponible en la web municipal “es necesario desarrollar una ingente labor de comunicación y formación en materia de cambio climático” (página 20). Generar menos CO2 es la principal medida para luchar contra el cambio climático. No entendemos que por un lado el Gobierno diga asumir lo que plantea la estrategia Klima DSS 2050 y por otro lado no quiera hacer una campaña dedicada al programa Hogares Menos CO2.

• Además de enmarcarse dentro de los compromisos del Ayuntamiento en materia de sostenibilidad, el programa Hogares Menos CO2 realiza una labor social y de interés público evidente ya que permite a las familias reducir sustancialmente su factura energética.

• Hace un año, el Gobierno votó a favor del punto pidiendo una campaña de comunicación entre la ciudadanía

kanpaina bat eskatzen zuen puntuaren aldeko boza eman zuen. Orain badirudi irizpidez aldatu duela eta jada ez du beharrezko ikusten. Ez genuen azalpenik jaso zergatik egin duen 180 graduko bira hori.

Gobernuak 2018rako egitea pentsatua daukana positiboa da, baina ez da nahikoa. Herritarrek egitasmoan parte hartu ahal izateko, gobernuaren "eskaeraren araberako" estrategiaren barruan, lehenik egitasmo hori badagoela jakin behar dute. Eta haren berri noizbehinkako ekitaldietan bakarrik ematea ez da nahikoa herritarrek egitasmoa ezagutu dezaten. Egitasmo honek berariazko kanpaina bat behar du.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko osoko bilkurak berriz eskatzen dio udal gobernuari egiteko komunikazio kanpaina bat Donostia-CO2 kanpainari buruz, donostiarrek egitasmo horretan parte har dezaten animatzeko.

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

donostiarra dedicada al programa Hogares Menos CO2. Ahora parece que ha cambiado de criterio y no lo ve necesario. No tuvimos explicaciones sobre el por qué de ese giro a 180º.

Lo que plantea hacer el Gobierno en 2018 nos parece positivo pero no suficiente. Para que la ciudadanía pueda pedir participar en el programa en el marco de la estrategia "a la demanda" del Gobierno, primero tiene que enterarse de que existe tal programa. Y comunicar sobre ello solo en el marco de eventos esporádicos no es suficiente para que la ciudadanía tenga conocimiento de ello. Ese programa merece una campaña dedicada.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta nuevamente al Gobierno municipal a desarrollar una campaña de comunicación dedicada al programa Hogares Menos CO2 con el objetivo de animar a la ciudadanía donostiarra a participar en el.

Donostia, a 16 de marzo de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, 65 urtetik gorako emakumeak egoera kalteberetan egon daitezen saihesteko neurriei buruzkoa.**

“Amaia Martinezek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikuluaren arabera, 65 URTETIK GORAKO EMAKUMEAK EGOERA KALTEBERETAN EGON DAITEZEN SAIHESTEKO NEURRIEN KONTROL MOZIO hau aurkezten du, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAn egindako interpelazioaren ondoriotzat.”.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia ekinbideak Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) egitasmo batean oinarritzen du bere jarduera, hiria adinekoentzat espazio atsegina izan dadin lortzeko.

2009tik, Donostiako Udalak jarduera hori beste hainbatekin batera bultzatu du: adinekoekin, hainbat arlotako profesionalekin, auzo elkarte, talde sozial eta kulturalen ordezkariekin, baita hiriko arduradun tekniko eta politikoekin ere. Prozesu horrek plan bat eginez bukatu behar du, adinekoek gure hiriko bizitzan parte hartzea eta egotea bultzatuko duena.

Donostia Lagunkoiaren erronka nagusien artean dago hiri inklusiboa sortzea, aniztasuna

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre medidas para evitar situaciones de vulnerabilidad de mujeres mayores de 65 años.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL SOBRE MEDIDAS PARA EVITAR SITUACIONES DE VULNERABILIDAD DE MUJERES MAYORES DE 65 AÑOS, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES.”.

JUSTIFICACIÓN

La iniciativa Donostia Lagunkoia basa su actividad en un programa impulsado por la Organización Mundial de la Salud (OMS) para hacer de la ciudad un espacio amigable para las personas mayores.

Desde 2009 el ayuntamiento de Donostia / San Sebastián impulsa tal actividad de la mano de la participación activa de personas mayores, profesionales de distintos ámbitos, representantes de asociaciones vecinales, sociales y culturales, así como con responsables técnicos y políticos de la ciudad, proceso que culmina con la configuración de un Plan que promueva la presencia y participación de las personas mayores en la vida de nuestra ciudad.

Entre los principales retos de Donostia Lagunkoia se sitúa la construcción de una

bultzatzen duena, eta denen autonomia eta parte hartzea sustatzen duena. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu egungo egoera aztertzeak jendearen bizitza hobetzeko balio izatea. Kasu honetan, Donostia Lagunkoiaren bidez, beharrezkoa da ekinbideak proposatzea oraingo arazo bati aurre egiteko: emakume donostiarrek jasaten duten kalteberatasun berezia , bereziki 65 urte baino gehiagoko emakumeek jasaten dutena.

ciudad inclusiva, que respeta la diversidad, promueve la autonomía y la participación de todas las personas. Por ello, nos parece fundamental que el análisis de la realidad actual sirva para mejorar la vida de las personas. En este caso, a través de Donostia Lagunkoia, es preciso plantear iniciativas que sirvan para hacer frente a un problema actual, la situación de especial vulnerabilidad que padecen las mujeres donostiarras, en especial, aquéllas que superan los 65 años de edad.

Gizarte inklusiorako diru laguntzen inguruko datuek hirian kalteberatasun egoeran dauden pertsonen egoeraren berri ematen dute. Auzoz auzoko mapa eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza eta halakoak eskatzen dituztenen banaketa abiapuntu bat dira zonen eta herritar taldeen arteko desoreka geratzeko beharrezko ekintzak proposatzeko orduan.

Los datos relativos a las ayudas económicas para la inclusión social presentan una foto de la realidad de las personas en situación de vulnerabilidad en la ciudad. El mapa por barrios así como la distribución de las personas titulares de ayudas como las Ayudas de Emergencia Social, son un punto de partida a la hora de plantear las necesarias actuaciones para frenar el desequilibrio tanto zonal como por grupos de población.

Iaz eman ziren Gizarte Larrialdietarako Laguntzen datuei erreparatzen badiegu, konturatzen gara 65 urtetik gora dituztenak direla laguntza horiek jasotzen dituen talde nagusia; hain zuzen ere, laguntza guztien % 34,7 Talde horren barruan, emakumeen eta gizonen arteko tartea izugarria da (691 emakumek jasotzen dituzte laguntzak, eta 191 gizonek) eta emakumeak dira, argi eta garbi, kalteberen. Horri gehitzen badiogu Donostian DBSEa jasotzen dutenen profil nagusia emakumezkoena dela nabarmen, eta, askotan, adinekoa dela, gainera, ikusarazten digu beharrezkoa dela gizarte zerbitzuak hobetzea adineko emakumeentzako politika espezifikoekin, jasaten duten egiturazko desoreka geratzeko balioko dutenak.

Si observamos los datos de Ayudas de Emergencia Social que se han dado el pasado año, se observa que las personas mayores de 65 años son el principal grupo receptor de tales ayudas representando el 34,7% del total. Dentro de este grupo, la diferencia entre hombres y mujeres es abismal (691 mujeres titulares de ayudas frente a los 191 hombres) y son las mujeres las que se observa se sitúan en una clara situación de vulnerabilidad. Este hecho unido a que el perfil tipo de perceptores de la RGI en Donostia refleja claramente que se trata de mujeres, en muchos de los casos, mayores, nos hace ver que es necesario mejorar los servicios sociales con políticas específicas para las mujeres mayores, que sirvan para frenar el desequilibrio estructural que padecen.

Hil honetako batzordean, Gizarte Ekintzako zinegotziak aitortu zuen emakumeek

En la comisión del presente mes, la concejala de Acción Social, reconoce la desigualdad

egiturazko ezberdinkeria jasaten dutela, eta zaila dela udal planen bidez hari aurre egitea. Era berean, uste du garrantzitsua dela elkarrekin hausnartzea, emakume gehiagorengana heldu ahal izateko; hala, hobeto bizitzeko aukera emango dien laguntzen inguruko informazioa jaso ahal izango dute.

estructural que padecen las mujeres y la dificultad para atender esta desigualdad estructural a través de planes municipales. Igualmente considera que es importante reflexionar de forma conjunta al objeto de conseguir llegar a más mujeres y, llegando a ellas, éstas puedan contar con toda la información relativa a las ayudas disponibles que puedan permitirles vivir mejor.

Alde horretatik, uste dugu, alde batetik, Donostia Lagunkoiari lan ildo espezifiko batzuk gehitu behar zaizkiola hiriko hainbat emakume adindu jasaten ari den egora kaltebera larri hori lantzeko. Beste alde batetik, emakumeek jasaten duten egiturazko ezberdinkeriari arlo insituzional guztietatik, baita udalerri mailan ere, aurre egiteko, adin guztiak kontuan hartuko dituen politikekin.

En este sentido, consideramos por un lado la importancia de dotar a Donostia Lagunkoia de una líneas especificas de trabajo que atienda esta situación de grave vulnerabilidad que se está dando en muchas mujeres mayores de la ciudad. Y por otro trabajar para hacer frente a la desigualdad estructural que padecen las mujeres desde todos los ámbitos institucionales, también el local, con políticas que abarquen todas las franjas de edad.

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

Es por ello, que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio sartzeko genero ikuspegia Donostia Lagunkoiaren hurrengo urteroko planean; hala, proposatzeko, besteak beste, egoera kaltebera duten emakumeak babesteko ekintza lerroak.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a incorporar la perspectiva de género en el siguiente Plan anual del programa Donostia Lagunkoia de modo que se planteen, entre otras, líneas de actuación destinadas a la protección de las mujeres en situación de vulnerabilidad.

2. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio Donostia Lagunkoiaren barruan aztertzeko egoera kalteberak dituzten adinduekin komunikazio bideak hobetzeko moduak, Donostiako adineko guztientzako bizitza duina bermatzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a analizar en el seno de Donostia Lagunkoia, fórmulas para mejorar los cauces de comunicación con las personas mayores en situación de vulnerabilidad de modo que se garantice una vida digna a todas las personas mayores en Donostia.

3. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio gizarte larrialdietako

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a

laguntzen barruan sortzeko laguntza lerro espezifiko bat 65 urtetik gora dituzten emakume donostiarrentzat, jasaten duten egiturazko ezberdinkeriari aurre egiteko.

4. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio eman dezala gizarte inklusiorako laguntzen inguruko informazioa sexuka banatuta, hirian emakumeek jasaten duten egiturazko ezberdinkeriari aurre egiteko neurriak ezartzeko aukera emango duen azterketa oso bat egin ahal izateko.

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

Sin. : Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

desarrollar dentro de las ayudas de emergencia social, una línea de ayudas específicas para las mujeres donostiarras mayores de 65 años al objeto de luchar contra la desigualdad estructural que padecen.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a facilitar toda la información relativa a ayudas para la inclusión social desagregada por sexos al objeto de realizar un análisis integral que permita establecer las medidas necesarias para hacer frente a la desigualdad estructural que padecen las mujeres en la ciudad.

Donostia a 16 de marzo de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, D.ª Aitziber San Román Abete y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK:5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Txingurri eta Herrera arteko bidegorri konexioaren ingurukoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikuluaren arabera, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako ESPAZIO PUBLIKOA, OBRAK ETA

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la conexión de bidegorri entre Txingurri y Herrera.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la

UDAL ZERBITZUEN Batzordean Txingurriko eta Arrobitxuloko bidegorriak lotzeko beharrari buruz egindako interpelazioaren ondoriotzat.

COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS, Y SERVICIOS URBANOS del presente mes sobre la necesidad de conectar el bidegorri de Txingurri y el de Arrobitxulo.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Joan den otsailean, Herrerako bizilagunekin egoteko aukera izan genuen. Han, auzoari buruzko hainbat iradokizun eta ezinegon jaso genituen. Besteak beste, zona horretako irisgarritasunarekin lotutakoak.

El pasado mes de febrero tuvimos ocasión de estar con los y las vecinas del barrio de Herrera. Allí recogimos diversas sugerencias e inquietudes sobre el barrio. Entre ellas, cuestiones relacionadas con la accesibilidad de la zona.

Herrerakoek eskatzen zuten, ekintza oso erraz baten bidez, handik pasatzen diren bi bidegorri elkartzea: Txingurritik datorrena eta, Intxaurrondoko Txaparrenetik etorrita, Arrobitxulotik pasatzen dena.

Desde Herrera solicitaban mediante una actuación muy sencilla buscar la conexión de dos bidegorris que transitan por la zona, uno que viene desde la zona de Txingurri y otro que, viniendo desde la zona de Txaparrene en Intxaurrondo, pasa por Arrobitxulo.

Zehazki esanda, Txingurriko bidegorria, egiaz, 30 bat metroko zati bitxi samar bat da, Perueneko bihurgunean hasi eta kalearen eta saihesbidearen artean dagoen aparkalekuan bukatzen dena, gainera, aparkalekuaren bukaeran, hots, irteerarik gabeko zona batean.

Para ser exactos, cuando no referimos al bidegorri de la zona de Txingurri, en realidad se trata de una sección un poco peculiar de unos 30 metros, que empieza en la curva de la calle Peruene y desemboca en el parking que está entre esa calle y la variante, además hacia el fondo del parking, es decir una zona sin salida.

Batzordean galdetu genuen bidegorriaren zati hain bitxi hori nola sortu zen, eta ea gobernuak ondo ikusten duen zati hori Arrobitxulotik datorrenarekin lotzea, bizilagunek proposatzen duten moduan. Gobernuak erantzun zuen ez zekiela nola sortu zuten bidegorriaren zati hori, Aldundiak egin zuelako, Altzatik hiriko erdigunera bizikletaz joateko lotura lantzen ari dela, eta Herrerako gunean trafikoaren inguruko udal ahaleginak 30 zonak egitera eta trafikoa baretzera zuzentzen dituztela, bidegorri bananduak egitea zaila delako.

En comisión preguntamos sobre la génesis de ese tramo tan peculiar de bidegorri, y sobre si el Gobierno ve con buenos ojos conectar ese tramo de bidegorri con el que viene de Arrobitxulo, como lo proponen los ya las vecinas. El Gobierno contestó que no conocía la génesis de este tramo de bidegorri ya que lo había realizado la Diputación, que está trabajando en la conexión por bicicleta de Altza con el centro de la ciudad, y que en la zona de Herrera los esfuerzos municipales en materia de tráfico se orientan hacia la realización de zonas 30 y de calmado de tráfico, por la dificultad de hacer bidegorris segregados.

Era berean, gobernuak aipatu zuen kota desberdintasun handia dagoela Txingurriko zonaren eta Arrobitxulotik datorren bidegorriaren artean, eta horrek zaildu egin dezakeela proposatu den moduko lotura bat egitea. Udalaren informazio kartografikoan, Txingurri inguruko bidegorri zatia 15 m-ko kotan dago, eta eskatzen den bidegorri zatiak pasatu beharko lukeen kotarik altuena 17 m-koa da. 180 m-k bereizten ditu bi gune horiek; beraz, % 1,1eko malda. Guztiz onargarria iruditzen zaigu malda hori; izan ere, beste bidegorri batzuek, Egia kalekoak kasurako, % 5eko malda dute.

También el Gobierno comentó que hay una diferencia de cota importante entre la zona de Txingurri y el bidegorri que viene de Arrobitxulo, lo que puede dificultar la realización de una conexión como la planteada. En la información cartográfica municipal, la porción de bidegorri cerca de Txingurri está a la cota 15m y la zona más alta por la que tendría que pasar la conexión de bidegorri pedida está a la cota 17m. 180m separan estos dos puntos, lo que nos da una pendiente de 1,1%. Nos parece una pendiente perfectamente asumible sobre todo cuando vemos que hay otros bidegorris, como el de la calle Egia que alcanzan 5% de pendiente.

Amaitzeko, esan beharra dago eskatutako bidegorri zati hori ez dela pasatzen autoek zirkulatzen duten kale batetik.

Por último, hay que señalar que el tramo adicional de bidegorri pedido no pasa por una calle donde circulan coches.

Udal bidegorrien mapan, Mugikortasun Sailaren webgunean ikusgai (https://is.gd/eT9z8z), mozio honek xede duen helburua ez dago “etorkizuneko ekintzen” artean. Era berean, Mugikortasun Sailaren webguneko (http://www.donostiamovilidad.com/bicicletas/proximas-actuaciones/) “Bizikletak” ataleko “hurrengo ekintzak" orrialdea hutsik dago.

En el mapa de bidegorris municipales, disponible en la web del Departamento de Movilidad (https://is.gd/eT9z8z), no figura dentro las “futuras actuaciones” la conexión objeto de esa moción. Del mismo modo, la página “Próximas actuaciones” del menú “Bicicletas” de la web del Departamento de Movilidad (http://www.donostiamovilidad.com/bicicletas/proximas-actuaciones/) está vacía.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio Herrerako bizilagunekin batera zehazteko zein ezaugarri izan behar dituen Txingurri inguruko bidegorri zatiaren (Peruene kaleko bihurgunean) eta Arrobitxulotik datorren bidegorriaren bizikleta loturak.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a definir conjuntamente con el vecindario de Herrera las características de la conexión ciclista entre la porción de bidegorri de la zona de Txingurri (en la curva de la calle Peruene) y el bidegorri que proviene de Arrobitxulo.

2. Donostiako Udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio bidegorrien inguruko hurrengo ekintzetan sartzeko eta lehentasuna emateko Txingurri inguruko bidegorri zatiaren (Peruene kaleko bihurgunean) eta Arrobitxulotik datorren bidegorriaren bizikleta loturari.

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a incorporar y priorizar en las próximas actuaciones en materia de bidegorris, la conexión ciclista entre la porción de bidegorri de la zona de Estangurria (en la curva de la calle Peruene) y el bidegorri que proviene de Arrobitxulo.

Donostia, a 16 de marzo de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK:2 - PP.**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 - PP.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Igeldoko bide publikoko obrei buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikuluaren arabera, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2018ko otsaileko ESPAZIO PUBLIKOA, OBRAK ETA UDAL ZERBITZUEN Batzordean Igeldoko bide publikoan egin diren edo egiteko dauden obrei buruz egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtarrilean bilera bat izan genuen Igeldoko Herri Kontseiluaren ordezkariekin. Hainbat arazoren berri eman ziguten, eta horietatik bik zerikusia dute Igeldoko bide publikoen berriztatzeekin.

Lehena Igeldoko hirigunearen eta campingaren arteko 670 bat metroko tartearen ingurukoa da. Bizilagunek eskatzen dute, gutxienez, espaloi bat egiteko tarte horretan, segurtasuna handitzeko. Inguru horretan, besteak beste, jatetxe bat, kultur gune bat eta landetxeak daude. Eta udan campingeko erabiltzaile asko ibiltzen da oinez tarte horretan, horrek dakarren arriskuarekin; izan ere, autoak ez dira neurrizko abiaduran ibiltzen gehienean zuzena den bide horretan.

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa a obras en la vía publica en Igeldo.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS, Y SERVICIOS URBANOS del mes de febrero 2018 relativa a obras realizadas o por realizar en vías públicas de Igeldo.

JUSTIFICACIÓN

En el mes de enero tuvimos una reunión con representantes del Herri Kontseilua de Igeldo. Nos trasladaron varias problemáticas, entre las cuales 2 tienen que ver con reformas de la vía pública en Igeldo.

La primera de ellas tiene que ver con el tramo de unos 670 metros entre el núcleo urbano de Igeldo y el camping. Los vecinos y vecinas piden que se realice una acera por lo menos en ese tramo para mejorar la seguridad. En la zona se encuentran, entre otros establecimientos, un restaurante, un centro cultural, y casas rurales. Y en verano mucha gente usuaria del camping circula caminando en ese tramo con el consiguiente peligro, ya que los coches no suelen ir a velocidad moderada en esa vía mayormente en linea recta.

Bigarrena Pilotegi bideari dagokio. Jakinarazi digute obrak egin zituztela duela bi hilabete inguru, bidearen beheko aldean, baina horrek ez dituela konpondu hautemandako arazo orokorrak. Herri Kontseilukoek azpimarratu dute bidearen zatirik arazotsuena goikoa dela, eta, besteak beste, eskatzen dute leku batzuetan bidea zabaltzeko, bi ibilgailuk aldi elkar gurutzatzeko tokia izan dezaten, bazter-babesak jartzeko, bide osoa asfaltatzeko, bide horretan lasai ibiltzeko (zenbait bizilagun ez dira ausartzen bide hori erabiltzen). Baina, batez ere, Udalarekin komunikazio handiagoa izatea eskatzen dute bide horretan egin beharrekoak zehazteko orduan.

La segunda concierne el camino Pilotegi. Nos trasladan que se han realizado obras hace más o menos dos meses, en la parte baja del camino, pero que las actuaciones no resuelven los problemas generales identificados. Desde el Herri Kontseilua resaltan que la parte más problemática del camino es la parte alta, y piden un ensanchamiento del camino en unos puntos para que se puedan cruzar dos vehículos al mismo tiempo, la colocación de “quitamiedos”, y que se asfalte todo el camino, entre otras cosas, para poder transitar con tranquilidad (varios vecinos y vecinas no se atreven a utilizar el camino). Pero sobre todo, piden más comunicación con el Ayuntamiento a la hora de determinar las actuaciones necesarias en este camino.

Arazo garrantzitsua da haientzat udal administrazioak kasurik ez egitea. Herritarrek Parte Hartzeko Zerbitzuko langileek Herri Kontseiluaren proposamenak eta eskariak bildu eta dagokien udal sailetara bideratzen dituzte. Baina Kontseiluak adierazi digunez, nahiz eta eskaera horiek dagokien udal sailetara bideratu, ez dute erantzunik jasotzen.

Esa falta de atención desde la administración municipal es un problema fundamental para ellos y ellas. Personal del Servicio de Participación Ciudadana recoge las propuestas y peticiones del Herri Kontseilua y las trasladan a los Departamentos municipales pertinentes. Si bien éste nos informa de que, a pesar del traslado de sus demandas a los Departamentos municipales correspondientes, no obtienen respuestas a las mismas.

Otsaileko batzordean, Igeldoko hirigunearen eta campingaren arteko espaloiari buruz genbiltzala, gobernuak esan zigun duela zenbait urte espaloia egitea proposatu zela, baina jabe batek ukatu egin zuela bere lursailaren zati bat lagatzea espaloia egin ahal izateko. Beraz, Udalak egitasmoa alboratu zuen.

En comisión del mes de febrero, en relación con la acera entre el núcleo urbano de Igeldo y el camping, el Gobierno nos comentó que hace varios años ya se planteó hacer la acera, pero que un propietario se había negado a ceder parte de su terreno para poder realizarla. Entonces el Ayuntamiento dejó el proyecto de lado.

Lursail hori ia tartearen bukaeran dago, campingetik gertu, eta zati txiki bat da (gainerako jabe guztiak ados zeuden). Aukera asko daude arazoa konpondu eta espaloia egin ahal izateko:

La parcela en cuestión está casi al final del tramo, cerca del camping, y se trata de una porción pequeña (todos los demás propietarios estaban de acuerdo). Existen varias opciones para solucionar el problema y poder hacer la acera:

• Gutxien-gutxienean, berriz hasi behar dira elkarrizketak bere lursailaren zati bat lagatzeko baimena eman ez zuen jabearekin.
• Bestalde, espaloi hori egiteak interes publikoari erantzuten dionez, beharrezko metro karratu horiek desjabetzea aztertzeko aukera ere badago.

• Azter daiteke espaloia alde batetik bakarrik egiteko aukera, jabea horrekin ados badago.

• Azter daiteke espaloia lursail horretara arte egiteko aukera, 670 metroko tarte horretan gutxienez 570 metrok espaloia izateko, batere espaloirik gabe egon beharrean.

Pilotegiko bideari buruz, gobernuak batzordean erantzun zuen Aldundiak eman zuen kantitate mugatuarekin ezin izan zela bide osoan jardun. Horrela izan bazen, Udalak bide osorako egitasmo bat ez zuelako aurkeztu izan zen, eta, ondorioz, laguntzak aurkeztutako aurrekontuari erantzun zion.

Era berean, gobernuak ulertarazi zuen, landa bidea izanik, beti eskatu behar zaiola diru-laguntza Aldundiari obra bat egiteko. Puntu horren inguruko desadostasuna adierazi beharrean gaude. Bide hori landa bidea da, eta, hori dela eta, Aldundiak laguntza bat eman dezake. Baina bidearen eskumena Udalarena da, eta hark erabakitzen du bide horretan zer egin nahi duen. Goitik behera berriztu nahi badu, Aldundiaren diru-laguntzarik gabe, egin, egin dezake.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio berriz aztertzeko,

• Como mínimo, se debe retomar las conversaciones con el propietario que no dio su acuerdo para ceder parte de su parcela.
• También existe la posibilidad, ya que la realización de esa acera responde al interés público, de valorar la expropiación de los metros cuadrados necesarios para hacer la acera.
• Se puede valorar la posibilidad de hacer la acera solo por un lado, si esto permite obtener el acuerdo del propietario.
• Se puede valorar la posibilidad de hacer la acera hasta esta parcela lo que permitiría tener por lo menos unos 570 metros de acera en este tramo de un total de unos 670 metros, en lugar de no tener nada de acera.

En cuanto al camino Pilotegi, en comisión el Gobierno contestó que con la cantidad limitada que dio la Diputación no se pudo actuar en todo el camino. Si fue así es porque el Ayuntamiento no presentó un proyecto para todo el camino y consecuentemente la ayuda se limitó al presupuesto presentado.

Igualmente el Gobierno dejo entender que, al ser camino rural, siempre hay que pedir subvención a la Diputación para poder hacer una obra. Debemos discrepar sobre este punto. El camino es rural y por eso la Diputación puede dar una ayuda. Pero la competencia del camino es del Ayuntamiento y él decide lo que quiere hacer en ese camino. Si lo quiere reparar de arriba abajo, sin subvención de la diputación, lo puede hacer.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a

ahalik eta azkarrena eta Igeldoko Herri Kontseiluarekin elkarlanean, Igeldoko hirigunearen eta campingaren arteko espaloiaren proiektua, eta aztertzeko bere esku dauden aukera guztiak: bere lursailaren zati bat lagatzearekin uzkur dagoen jabearekin negoziatzea, espaloia egiteko beharrezko metroak desjabetzea, espaloia alde batean bakarrik egitea edo espaloiaren zati bat bakarrik egitea.

estudiar nuevamente, a la mayor brevedad posible y en colaboración con el Herri Kontseilua de Igeldo, el proyecto de acera entre el núcleo urbano de Igeldo y el camping, y a valorar todas las opciones a su alcance: negociar con el único propietario reacio a ceder parte de su parcela, expropiar de los metros cuadrados necesarios para hacer la acera, realizar la acera solo en un lado, o realizar la acera parcialmente.

2. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio prestatzeko, ahalik eta azkarrena eta Igeldoko Herri Kontseiluarekin elkarlanean, Pilotegiko bidea berritzeko egitasmo bat, bizilagunek identifikatutako arazoak konpontzeko.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a preparar, a la mayor brevedad posible y en colaboración con el Herri Kontseilua de Igeldo, un proyecto de reforma del camino Pilotegi para resolver los problemas identificados por los y las vecinas de Igeldo.

3. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio Herritarrek Parte Hartzeko Zerbitzuari erantzun diezaiola hark herritarrekin duen harremanaren ondorio diren kontuak dagozkien sailei jakinarazten dizkienean.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aportar respuestas al Servicio de Participación Ciudadana cuando éste comunica a los Departamentos municipales correspondientes asuntos frutos de su trabajo de relación con la ciudadanía.

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

Donostia, a 16 de marzo de 2018

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.ª Olaia Duarte López y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, udal webguneko bideoei buruzkoa.**

“Amaia Martinezek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikuluaren arabera, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN udal webgunean argitaratutako bideoei buruz egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Aste honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean, Elgoibarko hilerriko kolunbarioan Gerra Zibileko 24 biktima (euskal geografiako hainbat hobitakoak) ehorzteko ekitaldian egindako bideoaren inguruan egin genuen interpelazioa; gorpu horien artean, Txaldatxur eta Burdinazko zubiaren inguruan aurkitutakoak zeuden, Donostiako udal mugartean.

Ekitaldi horretan, udalbatzako ordezkaritza zabala egon zen: Udalean ordezkaritza duten bost udal taldeetatik lauko ordezkariek hartu zuten parte.

Informazio hori jaso eta zabaltzeko, udal webgunean bideo bat argitaratu da ekitaldia laburbilduz. Aitzitik, bideoan EAJko

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre videos publicados en la web municipal.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES sobre videos publicados en la web municipal.

JUSTIFICACIÓN

En la comisión de Servicios Generales de este mes, interpelamos en relación al video que se realizó en el columbario que hay en el cementerio de Elgoibar durante el acto donde se procedió a la inhumación de 24 víctimas de la Guerra Civil de diferentes fosas de la geografía vasca, incluidos los restos de ocho combatientes aparecidos en fosas del monte Txaldatxur y de la zona del Puente de Hierro, en el término municipal de Donostia/San Sebastián.

En tal acto, hubo una nutrida representación de la corporación municipal, participando diferentes representantes de cuatro de los cinco grupos políticos con representación municipal.

Al objeto de dar cobertura y recoger esta información, en la web municipal se ha publicado un vídeo a modo de resumen del

kargudunengan bakarrik jartzen da arreta, eta han egon ziren beste udal taldeak baztertzen dira.

Alkatetzako zinegotzi ordezkari Viles jaunak, batzordean egindako interpelazioan, esan zuen protagonismoa ehortzitakoek izan behar dutela. Ados gaude hausnarketa horrekin, baina ez dator bat erakutsitako bideoarekin, Udaleko zenbait ordezkari agertzen baitira, halabeharrez EAJkoak, eta beste alderdietako arduradunik ez.

Beharrezkoa da gardentasuna eta informaziorako sarbidea bermatzea, benetakoa eta osoa izan behar duen informazioa, herritarrek ikus dezaten ekitaldia plurala izan zela. Uste dugu gobernuak ahalegin handiagoa egin dezakeela bai gardentasuna, bai informaziorako sarbidea bermatzeko; hortaz honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio webgunean argitaratzen diren bideoak hobetzeko, bideo horietako edukiek udalbatzako pluraltasuna kontuan har dezaten.

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

acto. Sin embargo, en el vídeo unicamente se incide en la presencia de los cargos de PNV excluyendo al resto de grupos allí presentes.

El concejal delegado de Presidencia, Sr. Viles, ante la interpelación formulada en comisión, consideró que el protagonismo debiera ser a los inhumados. Esta reflexión es compartida pero no responde a la realidad del video mostrado ya que aparecen varios representantes del ayuntamiento, casualmente todos del PNV, y ningún responsable de otro partido.

Es imprescindible garantizar la transparencia y el acceso a la información, una información que ha de ser veraz y completa, al objeto de que la ciudadanía pueda observar que el acto fue plural. Creemos que el gobierno puede hacer un esfuerzo mayor para garantizar tanto la transparencia como el acceso a la información, por lo que presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a mejorar los videos que se publican en la web de modo que el contenido de los mismos tengan en cuenta la pluralidad de la corporación municipal.

Donostia a 16 de marzo de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Igeldoko garraio publikoko zerbitzuaren ingurukoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikuluaren arabera, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako ESPAZIO PUBLIKOA, OBRAK ETA UDAL ZERBITZUEN BATZORDEAN Igeldoko garraio publikoko zerbitzuari buruz egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtarrilean bilera bat izan genuen Igeldoko Herri Kontseiluaren ordezkariekin. Hainbat arazoren berri eman ziguten, eta horietatik bik zerikusia dute Igeldoko garraio publikoko zerbitzuarekin.

Adierazi digute 16. linea, Igeldoren eta hiriaren gainerako tokien arteko lotura egiten duena, ez dagoela haien beharretara egokituta.

• Ibilbide luzea du (49 geltoki). Igeldoko

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa al servicio de transporte público en Igeldo.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS, Y SERVICIOS URBANOS del mes de febrero 2018 relativa al servicio de transporte público en Igeldo.

JUSTIFICACIÓN

En el mes de enero tuvimos una reunión con representantes del Herri Kontseilua de Igeldo. Nos trasladaron varias problemáticas, entre las cuales una tiene que ver con el servicio de transporte público en Igeldo.

Nos comentan que la línea 16, que hace la conexión entre Igeldo y el resto de la ciudad, no está adaptada a sus necesidades:

• Hace una vuelta importante (49 paradas)

bizilagunentzat ez da erabilgarria; are, Ondarretarekin konexio soil bat nahikoa litzateke.

• Lehen irteera 07:30ean da Igeldotik. Ordutegi hori pixka bat aurreratzeak aukera emango luke 08:00ak baino lehen erdigunera iritsi eta lan ordutegiak betetzeko.

• Zerbitzua ez zaio egokitzen auzoko landa egoerari. Landa guneek egokitutako zerbitzuak izaten dituzte; adibidez, minibus bat (erregularra edo eskaeraren araberakoa) bigarren mailako bideetan ibiltzeko.

Kontu horiei honela erantzun zien gobernuak:

• 16. linea horrela egin zen 2004an egindako parte-hartze prozesu baten emaitzei jarraitu zitzaiolako.

• Lehen irteerak aukera ematen du Gipuzkoa plazara 08:00ak baino lehen iristeko; zehazki, 07:55ean. Auzo askotatik eskatzen dute behin eta berriz irteerak aurreratzea edo maiztasunak handitzea. Plantea daiteke, baina lehentasuna eman behar zaio, eta, orain arte, lehentasunak beste batzuk izan dira.

